



—GROS AUZOA—







**AURKIBIDEA**

<b>I Sarrera</b> .....	.5
<b>II Gros auzoaren historia</b>	
Lehenengo urratsak: 1849 .....	.8
Lehen hirigintza proiektua: 1891 .....	13
Zurriola zabalgunea: 1911 .....	.21
<b>III Gros auzoko leku eta eraikin jakingarri batzuk</b>	
Zurriolako hondartza .....	.29
Okendo etxearen berri .....	.34
San Antonio Abad ospitalea, Manteon .....	.42
Sagues .....	.44
Txofreko zezen plaza .....	.47
Kursaal .....	.51
Biteriko azoka eta eskolak .....	.58
<b>IV Bibliografia eta iturriak</b> .....	.61

## I

**G**ros auzoan barrena paseatzen ari zarela, hango etxeak, kaleaketa plazak ikusiko dituzu, jendea dendetan sartu- atera ikusiko duzu, baina antzeman ere ez diozu egingo nolakoa zen garai batean. Orain dela ehun urte, urrunago joan gabe, Gros esaten zaion auzo hau hondartza handi bat bezalakoena zen, dunak eta hondar muinoak nonahi, errekatxo bat erdi- erdian, eta, hanhemen, etxe gutxi batzuk besterik ez zuten Donostiako txiki samarrak; haietara iristeko ez zegoen bide errazik, hondarrez eta harri- koxkorrez jositako bideak besterik ez.

Eta historian barrena abiatzen bagara, ehunka urte batzuk lehenago, orduan

Donostia osoa ere hondartza zen. Etxe bakan batzuk baizik ez zeuden, gaur egun Parte Zaharra esaten diogun leku horretan, harresiz inguratuak. Pixkanaka- pixkanaka Donostia handitzen hasi zen, gero eta jende gehiago bizi zen han, etxeak ugaritzen ari ziren harresietatik kanpo, inongo antolamendurik eta ordenarik gabe, nahasian. Orduan, donostiarrek garbi ikusi zuten harresiak bota beharra zegoela, eta geroztik “zabalgunea” esan zitzaion kanpoalde hura antolatu beharra zegoela. XIX. gizaldiko kontuak dira horiek, baina, urteak joan urteak etorri, 1863. m- tea arte ez zituzten harresi haiek bota. Hura izan zen gaur egun ezagutzen dugun Donostiaren

abiapuntua. Aurrena, Erdialdeko kaleak egin zituzten, eta hango etxeak eraiki. Gero Urumea ibaia bideratu beharra zegoela ikusi zuten, mareak gora egiten zuenean urak zeharo hartzen baitzituen ibai bazterreko hareatza haiek.

Eta Gros? Garai hartan ez zegoen han auzorik, dunaz betetako hondartza bat zen oraindik. Hango hondarra inguruko base-rritarrek erabiltzen zuten beren lurrak hobetzeko, buztintsuegiak ziren eta. Donostiako bazter hartako muino haiek ez zuten oraindik bestelako baliorik donostiarrentzat.



## II

**Lehenengo urratsak:1849**

Nolanahi ere, hiriko harresi barruan donostiar batzuk zabalgunere berria nola egin pentsatzen hasiak ziren bitartean, merkatari aberats batek begiz joak zituen ordurako Santa Katalina zubitik harago zeuden hareatza haiek. José Gros zuen merkatari hark izena, eta Donostiatik kanpoko lur sail mordoxka baten jabea zen. Merkatariaren senak esango zion hondarrezko eremu haiek balio handikoak izan zitezkeela noizbait, eta, izan ere, asmatu zuen azkenean. Beraz, hamaika gorabehera, eztabaida eta negoziazioaren ondoren, José Grosek hondar sail haien zati handi bat erosi zion Udalari; 1849ko ekainaren la

ageri da erosketaren dokumentuaren izenburuan. Dokumentu horretan bertan aditzera ematen denez, hondar sail haiek ez ornen zuten “herriarentzat inongo baliorik”. eta “musu truk ematen zaizkie lur



horiek hobetu nahi dituzten partikularrei” . José Gros jaunak erantzukizun eta ardura hau hartu zuen bere gain dokumentu hartan: “hondar sail horiek ondo landu eta gobernatu, eta hondarra besterik ez dagoen tokian erein- lurrak, baratzak eta lorategiak egin, eta, horrez gainera, zuhaitzak eta zuhaixkak landatu, edo lur haietarako gehien komeni diren landare motak bestela, era horretara berdetu daitezen bazter haiek eta izan daitezen emankorrak”. Beldurrik gabe esan daiteke egun hura izan zela, 1849ko ekainak 1, Grosen sorrera eguna, artean ez baitzituen baserri gutxi batzuk besterik, sakabanatuak eta modu txarrean urrutiratuak. José Gros jaunak ez ornen zituen erosi berria zuen hondar eremu haren gainean zeuzkan eskubideak puska batean ezertarako erabili. Hortaz, hango hondarra, batetik, baserritarrek erabiltzen zuten, arestian esan dugun bezala, lur buztintsu

haiek hobetzeko, eta, bestetik, eraikitze lanetan zebiltzanek, Donostian garai hartan



egiten ari Ziren herrilan askotan sor-  
José Grorek udolori idotzi tzen ziren zulo-  
ak betetzeko, batez ere tren zion lehenew  
eskutitzo, ulioko geltokia eraikitzeko lane-  
tan, hura baitzen, Donostian aldi hartan  
egin zen eraikuntza ad'era z'z lanik nagusia:  
Norteko geltokia, 1864ko abuztuaren  
15ean inauguratuko zena. Baina iritsi zen  
azkenean merkatari hark

lur haiei etekina aterako zien eguna. r872ko otsaileko dokumentu batean idatzitakoaren arabera, Katalina zubitik Flamenkoenea baserrirainoko bide berriko zuloa betetzeko erabiltzen ari ziren hondarrak José Gros jaunarenak ziren. Baserri hura zubi horren eta Uliá mendiaren artean ornen zegoen. José Grosek dokumentu horretan bertan esaten duenez, zumardiak eta ibilbideak egiteko lanak prestatzen ari zen, eta lan horiek ezin ornen ziren behar bezala egin, hondar horiek bide horretara eramaten zituztenek traba eta enbarazua besterik egiten ez ornen zutelako. Udalak arrazoia eman zion José Gros jaunari, baina ez dirudi haren kezkek eta arazoak han bukatu zirenik. Handik bi urtera, Uliako hogeita hamar jabe eta auzokide arranguran ziren Gros jaunak bidea itxi zielako. Urte haietan Donostian gogotik ari ziren lanean hiria zabaltzeko lanetan. Harresiak

boteak zeuden, Cortazarren hirigintza plana antolatua eta zehaztua zegoen, zabalunea tankera hartzen hasia zen. Urumea ibaia bideratu beharrak Groseko hondarra erabiltzeko premia ekarri zuen, eta handik sortu ziren makina bat auzi eta erreklamazio. José Gros 1880ean hil zen, eta haren seme Tomasek, 1841ean Enbeltran kalean jaioa, hartu zuen bere gain familiaren negozioen ardura. Handik aurrera, Tomas Grosen izena eta haren koinatu Juan Iribasena, Agueda Grosekin ezkondua, auzo horren historiari estu-estu lotuta egongo ziren hirigintza planak aurrera egin zuten urteetan. Haiek baitziren auzo berri bat eraikitzeakoak ziren lur haietako gehien jabeak.

### **Lehen hirigintza proiektua: 1891**

Gaur egun Gros esaten zaion auzo horren lehen hirigintza proiektua José Goicoa udaleko arkitektoak egin zuen 1891n;

harenak dira orobat Donostiako proiektu eta herri lan asko eta asko. Urte haietan etxeak eta eraikinak ugari jaso



Txofreko iturrio ziren, inongo ordenarik eta antolamendurik gabe, Urumea ibaiaren eta Uliia mendiaren artean. Ikusi besterik ez dago Txofreko erretenari zer gertatu zitzaien. Erreten hartako ura edateko ona zen, ez zuen ur emari handirik, baina oso kalitate onekoa izan behar zuen eta oso egokia baita ere janaria egosteko; Uliatik isurian zetorkion ura hartzen zuen, hondar erremuetan

barrena sartzan zen, Pasaira zihuan bidetik hurbil, eta azkenean Urumeara husten zituen urak, Santa Katalina zubiaren ondoan. Txofre baseritik zetorkion erreten hari



izena, baserri hari hala esaten baitzizaion, agian haren lehenengo jabea Jofre Ibañez de Yarza zuelako, 1579an Donostiako alkate izana. Urteen joanean, “Jofre” izen hori Txofre bihurtuko zen, eta izen Gros duela hori bera jarriko zitzaion erreten hari, 20ourte baserri hari, eta, gerora,



zezen plazari, eta baita, zezen plaza bota ondoren, haren gainean egin zen plazari eta kaleari ere. 1760ko plano batean “Txofreko Hareatza” esaten zaio leku horri.



Txofreko erreten hura, beraz, kutsatuz joan zen, bazter haietan fabrikak ugaritzen hasi ahala. Hortaz, jakin badakigu 1848an donostiarrek asko estimatzen zutela oraindik hango ura edatea. Baina handik urte gutxi batzuetara, 1862an, Cortazar arkitektoak konponbide bat bilatu behar izan zien erreten hartako usain txarrei. Ordurako hiru ziren han kokatutako fabrikak: bi

garagardo fabrika eta txokolate fabrika bat. Horiez gainera, baziren burdin lantegiak, litografia bat eta kapela fabrika bat ere. Fabrika horiek guztiek, eta han ziren



bizpahiru garbitokik, Txofreko erreteneko urak erabiltzen zituzten. 1885ean, leku batean baino gehiagotan aipatzen da ur lohitsu, kaltegarri eta usain txarreko haren kolore nazkagarria, nahiz erreten hura ia ibilbide osoan estalia zegoen ordurako. Aise esan daiteke Txofreko erreten hura Groseko auzo jaio berriko industriaren goraldiak hondatu zuela, eta auzo hartan hirigintza proiekturik ez egin izanak eman



zuela hartarako bidea, proiektu hori, ares-tian aipatu den bezala, ez baitzen 1891 urtea arte egin.

Goicoa jaunaren proiektu hura aurrera atera ahal izateko, udalak gogotik negoziatu behar izan zuen Tomás Gros eta haren koinatu Juan Iribas lur haien jabe nagusiekin. Azkenean, antolatuta gelditu zen Iruerako errepide nagusiaren (gaur egun Mirakruz kalea dago hor) eta Kolon pasealekuaren arteko eremua; kale hori ez zen zuzena izango, okertua baizik, itsas bazterren itxurak hala behartuta. Plano hartan ageri dira baita ere Galtzara Nagusia, Aita

---

Larroca, Trueba, Zabaleta.. . kaleak. Iparragirre kalea eta Kale Berria ere plano horretan ageri dira, izen horietxekin, baina beste kaleekiko zeharka lerrokatuak, ordu-rako eraikita zeuden eraikin batzuk errespetatu nahi izan zirelako, eta Kale Berria, berriz, Atotxarekiko komunikazio zuzena zelako; beste kale horiek, berriz, zuzen-zuzen zeuden lerrokatuta menditik ibairaino. Proiektu hartan baziren alderdi jakin-garri batzuk. Donostian hainbeste buruhauste sortzen dituen ipar-mendebaldeko haizetik gerizatu ahal izateko moduan aukeratu zen kale gehienen orientazioa. Eliza non kokatu erabakitzerakoan, oso kontuan hartu zuten bazela ordurako kape-ra bat jendearentzat zabalik Manteoko ospitalean,

eta baita ere eliza bat Atotxan. Elizaren aurrean kale bat eratu zuten, Aita Larroca kalea, alde banatan arkupeak zituena, era horretara ibilbide bat sor zedin udan eguz-

---

kitik eta neguan euritik babestua. Bazen beste kale bat auzo sortu berri hartan garrantzi handia izango zuena, Galtzara Nagusia, alboetan zuhaitz ederrak izango zituen. Azkenik, ibilbide eder bat eratu zuten itsasoaren ondoan, Kolon pasealekua, itsas ertzean txaletez eta billaz osatutako ilara bat izango zuena, hala izan zedin Kontxako pasealekuaren pareko edo hura baino gailenago. Auzo berri hura, beraz, ez zen hiriaren erdialdean sortzen ari zen zabalgunea baino eskasagoa izango. Udalak 1891ko ekainaren 22an onartu zituen José Goicoa jaunaren planoak eta proiektua. Negoziazio neketsu eta gogorretan sartu beharra zegoen orain, bai lurrak erosteko eta bai kaleak egin eta antolatu ahal izateko. Aldi berean, behar ziren bai-

men guztiak eskatu zitzaizkion “Ministerio de Fomento y Construcción Civiles” erakundeari, baina hark zehaztasun gehiago eskatu zituen, harik eta 1894ko ekainaren

8an “Gaceta de Madrid” albistariak Donostiako udalari Gros auzoaren hirigintza proiektua egiteko eta horretarako lanak hasteko baimena eman zitzaiola argitaratu zuen arte.

### **Zurriolako zabalgunea: 1911**

1886 aldera eraikia zen Urumearen ezkerreko harresi sendoa, eta horri esker egin ahal izan zen Sortaldekoa esan izan zaion zabalgunea. Ibaiaren beste aldean, berriz, hondarrezko ezponda bat zegoen, buruhauste handiak sortzen zituena. Are gehiago, ezkerreko horma jaso ahal izateko, ibaian ere lanak egin behar izan ziren, eta horrek ekarriko zituen hondar mugimenduek hamaika buruhauste sortu

zuten. Hondarrak maiz trabatzen baitzuen Urumea ibaiaren bokalea bera, eta baita



Santo Kotalinoko eta zurriolako Santa Katalina zubiko hiru begietatik bat hondor metok itsutu ere. Eragozpen horiek ikusita, erabaki zen horma bat eraiki beharra zegoela lehenbailehen Urumearen bokaleko eskuinaldean, eta, modu horretara, itsasoari puska handi bat kenduko zitzaion gainerra. 1907ko apirilaren 7ko Errege Agindu batek behar zituen lanak egiteko baimena eman zion udalari. Baina bi urte joango ziren hala ere, harik eta, 1909an, udalari oraindik balizko besterik ez ziren lur horien gainean proposamen bat egin zitzaion arte. A. L. Vogel jaunak eskaintza

hau egin zion udalari: berak jasoko zuen ibaia bideratzeko beharrezkoa zen horma hura, eta baita itsasoari kenduko zitzaizkion lurrak eta Reina Regente kalea lotuko zituen zubi bat



ere, eta horren truke, berak Itsas Kursaal bat eraikiko zuen lur horietxetan. Udalak baiezkoa eman zion, baina, kontuak kontu,



proiektu hura ez zen egin, eta azkenean bete egin zen baimenean adierazia zegoen epea. Berandu gabe, beste proposamen bat egin zitzaion udalari. Frantses talde batek A. L. Vogel jaunarenaren oso antzeko asmo bat proposatu zuen: Urumea ibaia bokaleraino bideratuko zuten, eta ibaiaren bi aldeak lotuko zituen zubi bat eraikiko zuten. Horren truke, 12.000 m<sup>2</sup> emango zizkion udalak, Itsas Kursaal bat egin zezaten han. Oraingoan udalak bere eskaintza hobetu zuen, hitz eman baitzuen eragile talde hari salduko zizkiola, elkar hartutako prezioan, itsasoari kenduko zitzaizkion gainerako lur guztiak. Kontratu hura 1911ko otsailaren 18an sinatu zuten. Baina gauzak ez ziren uste bezain errazak izan. Kontratua sinatu eta hurrengo hilabetean, eragile talde hark jakinarazi zion udalari berei emana zitzaien baimen hura Sociedad Inmobiliaria y del Gran Kursaal Marítimo de San Sebastian zeritzan elkarre arte sortu berri bati utzi ziotela. Azkenean

udalak onartu zuen baimen hura elkarte hari eskualdatzea, eta hala hasi ziren beraz Urumea ibaiko bokalea eskuinaldean bide-ratzeko lanak. Lur sail berri haiek urbanizatzeko proiektua egin beharra zegoen ordea, eta asmo horrek protesta handiak sortu zituen Colon Pasealekuko billetako jabeen artean, ordu arte ikuspegi paregabea baitzuten itsas ertzean. Goicoaren proiektua atalka ari zen tankera hartzen, etxeak eraiki ahala ematen baitzuen udalak alde zurririk pentsatuta zeuden kaleak egiteko baimena. Aldi berean, zabalgunek berri hari izen bat jartzeko premia sortu zen, ordu arte Uru mea ibaiaren eskuinaldea eta Colon Pasealekuaren ondoko hondartzak zeinek bere erara izendatzen baitzuten. Azkenean XIII. mendean geroztik erabilia zen izen bat aukeratu zuten, eta, hala, udalak, 1917ko irailaren 12ko bilkuran Groseko zabalgunek berri hari Zurriolako Zabalgunek deitzea erabaki zuten, eta baita ere hondartzari eta 1921eko

## GROS AUZOA

---

abuztuaren 14an inauguratuko zen zubiari ere. Hurrengo urtean, 1922ko uztailaren 29an, inauguratu zen Gran Kursaal kasinoa. Urte hartan bertan, 1922an, onartu zen itsasoari kendu zitzaion eremu hura, Zurriolako Zabalgunea, urbanizatzekeo proiektua, Juan Machimbarrenak eta Luis Díazek egina, proiektu hura hobetsi baitzuen udalak lehiaketara aurkeztu ziren bosten artean.



---

Proiektu hark José Goicoak 1891n egindakoa handitu eta zabaldu zuen, eta hari zar zaizkio gaur egun Nafarroa Hiribidea esaten zaion kalea, bai eta Colon Pasealekuaren eta hondartzaren artean dauden kaleak ere. Gauza bitxia da ikustea nola Machimbarrenaren eta Díazen proiektu horretan hainbat eraikin bota beharra aipatzen zen -besteak beste, Oblaten komentua eta Txofre zezen plaza-, eta nola orube hartan plaza handi bat egiteko asmoa zegoen. Proiektu haren atal hori ez zen 1974 arte egin.

## III

Lan honen bigarren zati honetan Gros auzoko leku jakin batzuen historia aipatuko da, gauza bat dela bestea dela garrantzitsuak edo bereziak izan direlako, den-denak aipatzeakluzeegi joko liguke eta. Horietako batzuk aspaldi desagertu ziren, beste batzuek aldaketa handiak izan dituzte, baina zeinek bere aldetik auzo honen historiaren alderdi jakin baten berri ematen dute, batek garai batekoa, beste batek leku jakin batekoa, eta horiek denek elkartuta Gros auzoaren historia labur hau osatzen eta aberasten dute.

### **Zurriolako hondartza**

Liburu honen hasieran esana dugu Donostia, sortu zenetik eta 600 bat urtetan, etxe



multzo txiki bat besterik ez zela Urgull mendiaren inguruan bildua. Gainerako guztia hareatza zen, itsasbehera zenean ia



osorik urak hartzen zuena: hura dena hondartza handi bat zen. Baina Urumea ibaiko urak bideratu zituztenean hasi ziren gaur egun ditugun hondartzak mugatzen. Orain dela ehun bat urte arte, Zurriolako hondartzak, adibidez, ia Gros osoa hartzen zuen, Irunera zihoan errepideraino. Lur sail haiek lehenengo aldiz urbanizatu

zirenean, 1891ko proiektuaren ondorioz hain zuzen, horma bat eraiki zuten kostaldean, gaur egun Colon pasealekua dagoen lekuan bertan. Hala, Zurriolako hondartza eder askoa zen, itsasbeheran batez ere, eta Zurriolako itsasertz hartan eraiki ziren txaletak Kontxako



pasealekukoan eta Ondarretakoan parekoak ziren. Arestian aipatu dugu baita ere nola 1911ko proiektu berriak Urumea ibaiaren eskuinaldea bideratu zuen bokale



raino, eta, hartara, zubi berri baten bidez, elkartu zituztela Reina Regente kalea eta itsasoari kenduko zitzaizkion lur sail berri haiek, eta, beraz, Colon pasealekuko txaletetako jabe probilejiatu haiek protesta egin zutela, ordu arte izana zuten ikuspegi eta kokaleku ederra galtzeko beldurrez. Ez zitzaien ordea bururatu ere egin itsas aurreko leku eder hura galtzeaz gainera, ia- ia hondartzarik gabe ere geldituko zirela. Eta halaxe gertatu zen. .

XX. mendea aurrera zihoan, eta donostiarrek Zurriolako hondartza berreskuratzeko premia izan zuten. Juan Machimbarrena izan zen premia eta nahi hura planoen bidez adierazi zuen lehena, proiektu bat aurkeztu baitzuen itsasertzeko ibilbide hura Sagueseraino eta Zemoriaraino urbanizatzeko, eta aldi berean Zurriolako hondartza zabaltzeko.

Handik gutxira, beste ingeniari batek, Ramon Iribarrenek, beste proiektu bat landu zuen, Zurriolako hondartza zabaldu ez ezik, hiriarentzat zeharo berreskuratzen zuena. Udalak berehala onetsi zuen proiektu hura, eta 1944an hasi ziren lanak. Hartarako behar ziren harriak Monpaseko harrobitik atera zituzten, eta tren txiki baten bidez garraiatzen zituzten itsasertzean barrena Urumea ibaiko bokaleraino. kai muturra egin ahal izateko. Lanak ordea oso motel zihoazen. Era hartako lanabesekin ezin ziren proiektu hartarako behar ziren harri bloke handiak atera, eta, azkenean, 1948an, lanak gelditu behar izan zituzten. Behin baino gehiagotan egin ziren Zurriolako hondartza txiki hura zabaltzeko saioak, harik eta, azkenean, lanei behar bezala heldu eta, 1995eko maiatzaren 8an, gaur egun bazter horretan dagoen hondartza bikaina inauguratu zen arte.

### **Okendo etxearen berri**

Anton Bono de Okendok 1429an hartu zuen Donostian bizilekua. Garai hartako gizartean itzal handia ornen zuen haren familiak, gauza ziurra baita haren seme Juan Bono de Okendok beretzat hartua zuela itzal handiko familientzat bakarrik gordetzen ziren karguetako bat, Santa Maria elizari zegokion zaintza berezia, 1464tik 1471ra. Okendo esaten zaion etxe hori almirante ospetsuaren aita Miguel de Okendo jeneralak eraiki zuen, XVI. mendearen bukaeran. Etxe hori pinadi batean zegoen, Ulia mendiaren magalean, eta baliteke jeneral horrek etxe hori udako egoitza gisa nahi izatea, bere familiak bai baitzuen etxe bat hiriko harresien barruan. Familia horren noblezia agiria, berriz, ez zen Okendo, San Millan baizik, eta hauxe eta leinu horren historia. Antonio de Okendo (1577- 1640) almiranteak bere testamentuan garbi idatzita utzi zuen bere nahia, alegia, erregeak berari edo bere

ondorengoei noble titulu bat ematen baldin bazien, Okendo izenari atxikia egon zedila titulu hori. Nolanahi ere, noblezia agiri hori ez zion erregeak Okendoren seme Antonio Feliperi eman, haren biloba Miguel Carlos de Okendori baizik. Eta Karlos II. a erregeak 1689an almirantearen bilobari noble titulu bat eman zionean, honek ez zuen aitaren leinuaren deitura aukeratu, amarena baizik, eta hala izendatu zuten San Millango markes. Itxura denez, San Millan familia horrek Zizurkilen zuen oinetxea; oñaztarren alderdiari atxikia zegoen, eta garrantzi handiko betekizunak izan zituen XV. mendean Ahaide Nagusien artean izan ziren liskarretan. Borroka eta iskanbila haien ondorioz, 1457an leinu horren dorretxeari dorrea bota zioten Gipuzkoako Anaidiaren aginduz, beste dorretxe batzuei bezala, San Millandarrei mendeku hartzeko eta XVI. mende osoan zehar iraun zuen jauntxoen aurkako erasoaldi handi baten barruan.

Beraz, XVIII. mendearen erdialdera Okendo etxean, ordu arte Manteo base-  
ria esaten



zitzaion hartan, ez ziren Okendotarrak bizi, beste familia bat baizik, bizimodua hango lurrak lantzen ateratzen zuena. Hala ere, lur haien jabetza Okendo familiarena edo San Millango markesena zen. Manteo izena Okendo etxea dagoen ingaruari lotuta gelditu da. Toponimo horren okendoKultul Etxea jatorria ezezaguna

da, baina erroak bota ditu bazter horietan, izen hori bera hartu dute- eta lur horietan eraiki izan diren eraikin batzuek: San Antonio Abad ospitaleak, adibidez,



Manteoko ospitalea ere esaten baitzitzaion.

XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran gaur egun Gros auzoa den lurretan zeuden hondar sail haiek urbanizatzeko asmoa sortu zenean, San Millango markesa zen sail haien jabe nagusietako bat, eta, hartara, udalarekin auzitan ibili zen behin baino gehiagotan bere jabetza-koak zituen lurretan kaleak antolatu eta lerrokatu beharra iritsi zenean. San

Millango markesak 1939an utzi zion udalari Okendo etxearen edo Manteo baserriaren jabetza. Harrezkero etxe hori bi aldiz eraberritu du udalak: 1950ean eta 1986an; bigarren aldi horretan Kultur Etxe gisa erabili ahal izateko lanak egin ziren. 1964ko urtarrilaren 17ko Ministerioaren Aginduak probintziako monumentu izendatu zuen Okendo etxea.

Antonio Okendo almirantea 1577an jaio zen; aita hil zitzaionean ikasketak utzi zituen, eta etxe hartako seme nagusia nola zen, bere familiaren ondasunak administratzeko zeregina egokitu zitzaion.

Itsas armadan sartu zen, Felipe II. a hil zelarik, eta han erantzukizun handiko kargu asko izan zituen, batez ere gerra ekiznaldi askoren ardura. Besteak beste, turkiarren aurkako ekinaldiak Mediterraneo aldean; Ozeano Atlantikoko .kostaldeko ekinaldiak Indietara bidean zihoazen espainiar galeoiei erasotzen zieten kortsarioen am- ka; bera izan zen baita



ere Sevillako Kontratazio Etxeak bidaltzen zituen ontzi lerroen arduraduna, Indietako Ontzidien eta Kantauriko Eskuadraren Kapitain Jenerala izendatu zutenez geroztik. Bere leinua Gipuzkoako leinu gorenetako bat zen, baina bera bizi izan zen garaian leinuak galduxezuen ordu arte euskal gizartean izana zuen garrantzi han-



dia. Alderdietan antolatutako gizartea desegin egin zen XVI. mendean, Ahaide Nagusien arteko liskarren eta borroken ondorioz, eta harrezkero, Gipuzkoan behintzat, pertsonak ez ziren leinu edo alderdi jakin batekoak izateagatik definitzen, etxe edo oinetxe ezagun batekoak izateagatik baizik, eta oinetxe horretatik hartzen zuen zeinek bere izena. Mende horretan bertan familien jatorria hirugarren mailaraino mugatu zen, eta erabaki jakin batzuk hartu ziren

senidetasuna ahultzeko; alegia, leinuak ez zuen ordurako Erdi Aroan gizartea antolatzen eta egituratzeko lotura gisa izan zuen indar handia.

Okendo almirantea aipatu dugunean ikusi dugu nola noble titulu bat lortu nahi izan zuen bere familiaren izena betikotzeko, baina nahi hori ustel atera zitzaion, eta zapuztuta gelditu zen.

Ikusi dugu baita ere donostiarrek Okendo etxea edo Manteo etxea esaten dioten oinetxe horrek ez ziola familiari izena eman, alderantziz baizik, XVI. mendearen bukaeran almirante ospetsuaren aitak Ulia mendiaren magalean landetxe bat eraikitzea erabaki zuelarik, orduan hartu zuen etxe hark jabearen familiaren izena.

### **San Antonio Abad ospitalea, Manteon**

1840 ezkeroztik Donostian bazen ospitale bat, Erruki Etxearekin batera eraikia, Frantziskotarren komentu zaharra egon zen lekuan, gaur egun Zuhazti eskola eta udaleko lantegi eta biltegi batzuk dauden lekuan, eta aurki Groseko Polikiroldegia eraikiko den tokian bertan. Ospital hartan lekurik ez zegoenez, beste eraikin bat eraiki beharra egokitu zen, oso- osorik ospitalerako erabiliko zena. Leku jasoago batean kokatu zuten, itsas ondoan, eta hirigunetik urrunxeago, Ulia mendiaren magalean. Artean Gros, auzoa izango zen leku haren urbanizazioa hasi gabe zegoela oraindik, 1881n udalak azkenean Manteo baserriko lurren zati bat erosi zion baserri haren jabe Sangarreneko baroiari. Hondar muino haien jabetza hain ahasia zegoen, non saio

latzak egin behar izan ziren bilatzen, aztertzen eta ikertzen, lur haien jabea nor zen jakin ahal izateko. Proiektu hura udaleko arkitekto Goicoa jaun ospetsu eta lan honetan behin eta berriz aipatuak egin zuen.

Ospital Nagusi horrez gainera, infekzioak sendatzeko ospitale baten premia zegoen Donostian, baina ez zen erraza harentzat leku egoki bat bilatzea, inork ez baitzuen era hartako eraikin bat auzoan eduki nahi. Udalak, erabaki bat hartu beharrez, hasierako proiektua aldatu zezala eskatu zion Goicoa jaunari, eta, era horretara, elkartu zitzala bi ospitaleak, nagusia eta infekzioak sendatzekoa, leku berean. Beraz, bi ospitale horiek hainbat pabilioitan banatu ziren, muturretik elkartuta zeuden pabilioi haiek, eta zerbitzu orokor berberak zeuzkaten bientzat. San Antonio Abad ospitalea 1886ko abenduaren 4an inauguratu zen, eta 1960 arte egon zen jardunean, urte

hartan zabaldu baitzuten Amarako ospitalea. Handik gutxira, Manteoko eraikin hura bota egin zuten, udalak alderdi hura urbanizatu nahi baitzuen, eta, era hartara, olak egin han.

### **Sagues**

Etxe multzo txiki bat izan arren, Groseko alderdi horrek izaera berezia izan du beti, hainbestera non jende askok uste izan baitu beste auzo bat dela, Gros auzoaren oso bestelakoa.

Ata1 berezi bat eskaini diogu lantxo honetan, Gros auzoaren oso bestelako moduan sortu zelako, eta agian horrexegatik izan da askorentzat bazter auzo moduko bat, Grosetik aparte edo zegoena, azken aldi honetan Grosi gero eta lotuago baldin badago ere.

Gros auzoarentzat, arestian esan dugun bezala, urbanizazio plangintza oso bat egin

zen, eta hala esan daiteke Gros auzoa 1849ko ekainaren lean sortu zela, baina Sagueseko bazter hark ez zuen izan etxe eta kale haiek ordenatuko eta antolatuko zituen azterketa eta egitasmo berezi eta



osorik. Auzo hori pixkanaka- pixkanaka ankeratuz joan zen, 1923tik 1925erako urte haietan, Letetik (Nafarroa) etorriak ziren Eusebio eta Blas Sagues anaien eta “Francisco Sagües y Cía” enpresaren bultzadaz; bi anaia kontratista horiek banan-banan eskatu zuten hango etxe bakoitza eraikitzeko baimena, eta eraiki ondoren

udalak zegokien lizentzia eta oniritzia eman zien.

Espainiako gerra zibilaren lehenengo hila-beteetan Sagueseko biztanle gehienek ihes egin zuten: 1936 hasieran 2.273 ziren hango biztanleak, eta urte hartako irailera-ko ez ziren 417 besterik gelditzen.

Auzo hura ia biztanlerik gabe gelditua zela ikusirik, Juan Machimbarrena ingeniariak aukera hartaz baliatu nahi izan zuen, eta auzo hura botatzeko eta berrantolatzeko proiektu bat aurkeztu zion udalari. Haren arabera, Hiri- Lorategi bihurtuko zen Sagues, igerileku handi eder batekin, eta solarium bat hondartza bazterrean, hondartzarekin mailadi baten bidez lotua egongo zena. Garai hartako alkatea Múgica jaunak gogo beroz onartu zuen asmo hura, baina kargua utzi behar izan zuen hartarako behar ziren baimenak eman baino lehenago.

Gaur egun, Zurriolako hondartza berriaren

eraginez, Saguesek gora egin du, eta haren balioa asko handitu da alderdi guztietan; gainera, garai batean baino askoz lotura handiagoa du Grosekin, eta beldurrik gabe esan daiteke haren baitan zeharo sartua dagoela gaur egun.

### **Txofreko zezen plaza**

Goicoa jaunak Gros auzoa sortzeko eta antolatzeko egin zuen proiektu haren azken baimenakXIX. mendearen bukaeran eskatu eta eman zirenean urbanizazio lanek indar handia hartu zuten; eta, 1894an, behin betiko onartuzenean proiektu hura, etxe eraikitzaileen ekina hainbesteraingoa izan zen, non udalak behin baino gehiagotan promotoreak geldiarazi behar izan baitzituen, gauzak behar bezala egin zitezten. Lehia bizi hartan, zezen plaza eraikitzeko asmoak indar handia hartu zuen. Aspaldi



batean Donostiako alkate izandako Jofre Ibañez haren baserriarenak ziren lurretan zegoen muinoa aukeratu zuten horretara



ko; arestian aipatu dugu, Txofreko erreteii-gotzen naz hitz egin dugunean, nola gizon haren izenak izan zuen bilakaera fonetikoak sortua dela gaur egun “Txofre” esaten diogun izena. Otsailaren 17an Gregorio Reparazek, Zezen Plaza Berriko Batzordeko lehendakariordeak, zezen zirko bat eraikitzeko baimena eskatu zion udalari. Aurreneko baimena

jaso ondoren, apirilaren 28an Gregorio Reparazek zezen plaza berriko planak aurkeztu zituen udalean; udaleko arkitekto Goicoa jaunak bere oniritzia eman zien plano horiei, eta, hala, maiatzaren zoon udalak zezen plaza egiteko behin betiko baimena eman zion batzorde hari.



Bere hala hasi ziren lanak, han- hemen sortu ziren traba, oztopo eta eragozpen txikiak alde batera utziz. Hasteko, Txofreko iturriak oztopo egiten zien lan' haiei, baina udaleko lanetarako ingeniari Manuel

Sarasolak “guztiz ere ezinbestekoa” zela esan zuen. Azkenean, iturria beste leku batera aldatzeak ekarri zuen arazo haren konponbidea.

Zezen plaza 1903ko udan inauguratu zen. 70 bat urte iraun zuen, eta bitarte horretan zezenketaririk ospetsuenek jardun zuten han; hura ornen zen gainera, adituek diotenez, zezen plaza guztien artean tauromakiaren arauak zorrotzen errespetatzen zitueneko bat.

Txofreko zezen plaza bizkor eraiki bazuten, bota ere laster batean bota zuten. 1973ko urriaren 25ean, Zezen Plaza Berriko Kontseilari Ordezkariek, Mauricio Matallanes Michelena jaunak, zezen plaza botatzeko eta hango lurrak inguruko kaleen mailara berdintzeko asmoa agertu zion udalari. 1974ko urriaren 4an zezen plaza botatzeko baimena eman zion udalak batzorde horri; hurrengo hilabetean lur hura zelaitzeko baimena ere eman zitzaion, eta

zehazten zen orobat hango hondarra Kontxako eta Zurriolako hondartzetara bota zitekeela, baina baldintza jakin batzuekin, besteak beste, “gutziz ere garbiak diren hondarrak Kontxako hondartzan botako direla, eta zikin samarrak daudenak, berriz, %20tik gorako lur kopururik ez dutenak alegia, Zurriolako hondartzan, ibilbidea bukatzen den lekuan”. Zezen plaza hori zegoen lekuan Txofre plaza dago gaur egun.

### **Kursaal**

Lantxo honen hasieran ikusi dugun bezala, Groseko lehenengo Urbanizazio Plana (1891) egin ondoren, eta proiektu hura aurrera eramaten hasiak zirenean, arazoak sortu ziren Urumea ibaiaren eskuinaldean. Ezkerraldean euste horma eraiki izanak hondarren egongunea aldatzea ekarri zuen, eta eskuinaldean ere horma bat eraikitzeko premia sortu zen. Gainera, lan horiei esker



eremu handi bat hartzen zitzaion itsasoari. Horrela sortu zen Itsas Kursaal zeritzan eraikina sortzeko asmoa. Gorabehera batzuen ondoren, azkenean “Sociedad Inmobiliaria y del Gran Kursaal” elkarteak beretu zituen lur eremu haiek, eskuinaldeko euste horma sonatu hura eta bi aldeak elkartuko zituen zubia egiteko lanak ordaintzearen truke.

1916an nazioarteko lehiaketa bat antolatu zen kasinoa eta antzokia izango zen Kursaal hura eraikitzeko, eta urte hartan bertan aukeratu zuten lehiaketa haren irabazlea: Parisko Auguste Bluysen arkitektoak aurkeztutako proiektua. Lucas Alday donostiar arkitektoa izan zen lan haien zuzendaria, eta, azkenerako, 1922ko uztailaren 29an inauguratu zen eraikin berria. Kasino- antzoki hori Europako onenetakotzat zeukaten garai hartan. Eta, hala eta guztiz ere, ez zuen askorik iraun: inauguratu eta handik bi urtera, 1924ko irailaren 30ean, Primo de Rivera jeneralak jokia



---

debekatu zuen. Hurrezkeren Kursaal gauza asko eta desberdinetarako erabilia izan zen: antzoki, zinema areto, dantzaleku, kirol lehiaketak egiteko areto, jatetxe, etab.

1960 urtearen inguruan “Sociedad Inmobiliaria y del Gran Kursaal” elkarteak auzitan jarri zuen ez bakarrik eraikin hura zertarako eta nola erabili, baita eraikinaren beraren izatea ere. Hala, 1964an, nazioarteko lehiaketa bat egin zen bazter hartan eraikin berri bat egiteko, eta ehundik gora proiektu aurkeztu ziren. Kaliforniako Lubycz- Niyz irakaslea buru zuen arkitecto talde baten proiektuak irabazi zuen lehenengo saria.

Nolanahi ere, saritutako proiektua inondik ere eraikitzerik ez zegoenez, “Sociedad Inmobiliaria y del Gran Kursaal” elkarteak ahalegin handiak egin zituen lehiaketa hartan bigarren saria eskuratu zuen proiektua aurrera ateratzen, Fizinsky jauna buru zuen brasildar arkitekto taldearena. Bide hartatik ere ez zen korapilo hura askatu, eta beste konponbiderik ez zuten aurkitu,



---

beste lehiaketa bat antolatzea ez bazen, oraingoan mugatua; Corrales eta Vázquez Molezún arkitektoen proiektuak, geroago L. Peña Ganchegui donostiar arkitektoa bildu zitzaizela, irabazi zuen bigarren lehiaketa hura. Era horretara. 1973ko abuztuaren 22an, aurkeztu zen udalean Kursaalera behin betiko proiektua, inguru guztia urbanizatzeko lanak ere aintzat hartzen zituena. Erabaki hark ez zuen hala ere erabateko konponbidea ekarri. Proiektu hartan bazen dorre bat udalaren arautegia betetzen ez zuena, luzeegia baitzen, eta, hortaz, proiektua berriz moldatu beharra egokitu zen, dorre haren luzera apaltzeko eta haren bolumena beste modu batera antolatzeko. Ika- mika haiek konpondu zirenerako,

1975 urtea zen. Kursaalera lanak hasi, hasi ziren, baina bukatu ez... ez baitzuten zimenduak jarri besterik egin. Ordurako Itsas Kursaal Handia botea zen, bi urte

lehenago, 1973an.

Hamar bat urte joan ziren, eta orube baztertu haren gainean ez ziren Donostian zurrumurruak eta proiektuen oihartzunak baizik aditzen, eta baita parte gaiztoko zantzuak ere: orube hark hilkutxa baten tankera ornen zuen, eta horrek ez zuen ezer onik iragartzen.

1990ean Donostiako udalak aurrea hartu nahi izan zuen, ordurako berea baitzuen Kursaaaleko orube hura: lehiaketa mugatu bat antolatu zuen, eta sei arkitektori egin zien parte hartzeko gomita udalak proiektu hari jarri zizkion baldintzetan: eraikin berrian entzutegi bat eraiki behar zen, baita ere kongresu areto bat eta erakusketa areto bat, eta, horrez gainera, horretarako behar ziren zerbitzuak, kafetegia, jatetxea...

Lehiaketa hartan Rafael Moneo nafar arkitektoaren proiektua aukeratu zuten, eta haren hitzetan, inguruko paisajea txertatutako proiektua zen berea, bi arroka handi

Urumeako bokaleko hondarretan zut. Kursaal berria i999ko udan inauguratu zen.

### **Biteriko azoka eta eskolak**

Pedro de Viteri arrasatearraren izena dute Gipuzkoako hainbat herritako eskolek, hark eman baitzuen horretarako berariaz behar zen dirua. Grosen ere eskola bat eraikiarazi eta eman zion auzoari. San Inazio elizaren ondoan zegoen, baina ez gaur egun izen bereko eskola dagoen aldean, beste aldean baizik. Eraikin hark 810 m2 zituen, lorategiz inguratua zegoen, eta burdinezko hesi batez itxia. i906ko uztailaren Tan inauguratu zen, eta 1950 arte han egin zituzten ikasketak Groseko neska-mutil askok. Biteriko eskola horien ondoren Groseko azoka zegoen, Zabaleta, Galtzara Nagusia eta San Franzisko kaleen artean. i908an eraiki zuten, baina berehala txikia gelditu zen, hondatu ere egin zen,

eta azkenerako itxi; baina auzokoen eskariz, konpondu, eta 1922an ireki zuten berriro. Eskola horiek eta merkatua bota zituztenean Kataluña plaza egin zuten haiek zeuden lekuan. Baina geroztik eskola berri bat egin zen elizaren beste aldean, itxuraz eta tankeraz inguruarekin kontraste handia sortzen duena.

XIX. mendearen erdialdeko donostiarrek nekez antzemango zuten, urteen joanean eta hamaika buruhauste, proiektu, plangintza eta lanen ondoren, Ulia mendiaren magaletik Urumea ibaiaren bazterreraino zabaltzen zen eremu hondarrez estali hartan bertan halakoxe auzo eder eta bikain bat egongo zenik 150 urte geroago, donostiar guztiek Gros deitzen ziotena.